

04/07 AKTA

## 2007KO APIRILAREN 26AN EGINDAKO BATZARRA

Mendexan, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta zazpiko apirilaren ogeita seian, iluntzeko zazpi eta erdietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Luis M<sup>a</sup> Ocamica Gogenola alkate jauna buru dela.

***Bertaratuak:***

*Zinegotziak:* Juan Miguel Txakartegi Zendoia  
Martin Aranzamendi Gabiola  
Txomin San Martin Badiola  
Miguel Iturbe Sarasola  
Maria Magdalena Gabiola Arostegi  
*Idazkaria:* Miren Begoña Laka Ortuondo

***Bertaratu ez direnak:***

Jose Manuel Laka Arrillaga

Alkate-udalburu jaunak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

**1.- JUAN MIGUEL ERRAZKIN JAUNAK ESKATUTAKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA UKATZEA.-** Juan Miguel Errazkin Anakabe jaunak Zelaia auzoko Mispillabe lursailan eraikita dagoen txabolako teilapea handitzeko obretarako udal baimena emateko bideratutako espedientea ikusirik.

Ikusirik, halaber, Jesus Angel Landia Uribe udal arkitekto aholkulariak emandako txostena.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak ahobatez erabaki du:

Eskatutako lizentzia ukatzea, arkitekto aholkulariak emandako txostenean azaltzen denez, Mendexako Arau Subsidiarioetan ezarritako gehieneko neurriak bikoiztu egiten baititu eta ezinezkoa da.

**2.- MERTXE ROSAS ETA MANUEL OYANGUREN JAUNANDREEN ESKAERA.-** Mendexako Udalak obretarako udal baimena eman zien Mertxe Rosas eta Manuel Oyanguren jaunandreei Liko auzoko Arrasateko guneruralean etxebizitza bakarra eraikitzeko, eta obren gaineko zerga eta tasaren likidazioa igorri zitzaizen baimenarekin batera. Likidazioa jasotakoan, aipatutakoek likidazioaren zenbatekoa hiru zatitan ordaintzeko eskaera aurkeztu dute udal honetan.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Mertxe Rosas eta Manuel Oyanguren jaunandreek ordaindu beharreko obren gaineko zerga eta tasei buruzko likidazioak zatika ordaintzeko eskaera onartzea, ondorengo kopuru eta epeekin:

- 3.051,10 € 2007ko maiatzaren 15a baino lehen.
- 3.051,10 € 2007ko abuztuaren 14a baino lehen.
- 3.051,10 € 2007ko abenduaren 14a baino lehen.

**3.- M<sup>a</sup> CARMEN LADISLAO ANDREAREN ESKAERA.-** M<sup>a</sup> Carmen Ladislao Ladislao andreak, Karraspioko hondartzan kokaturiko 2. zenbakidun edari salmentarako kasetaren ustiaketaren titularra denak aurkeztutako idatziaren berri eman da. Bere bitartez udaldian biltegi bezala erabiltzeko 2,35 x 2,20 metro inguruko kaseta laguntzaile mugikor bat jartzeko baimena eskatu du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

M<sup>a</sup> Carmen Ladislao Ladislao andreari eskatutako baimena ematea, ondoren azaltzen diren baldintzapean:

1.) Kokalekua: Kaseta eskaeran azaldutako lekuan jarriko da, beti ere inguruan kokatutako izozki kioskotik nahikoa urruti eta ahal den neurrian aparkalekuak okupatzea ekidituz.

Kasetaren kokaleku zehatza udal pertsonalak gainbegiratuko du, ahal denik eta kalterik gutxien sortzen dituen lekuan jarria izan dezan.

2.) Udalari ordaindu behar zaion kanona BERREHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA LAUROGEITA SEI ZENTIMO (225,86 €) izango da.

Kanonaren ordainketa kaseta jarri aurretik egin beharko da Mendexako Udaletxean. Beharkizun hau ez betetzeak, baimen hau efekturik gabe utziko du.

3.) Baimen epealdia: Baimenaren datatik 2007ko urriaren 30a arte baimentzen da kaseta jarrita egotea.

Epealdi hau bukatuz gero kaseta kendu egin beharko du. Horrela ez balitz, kaseta kentzen atzeratutako egun bakoitzeko isun bat ezarriko zaio.

Emandako baimenak ez du suposatzen ondorengo urteetan ere kaseta jartzea baimenduko denik. Jarri nahiko balu, eskaera berria aurkeztu beharko du, Mendexako Udalak aztertzeko.

4.) Edari kasetaren inguruan hainbat mahai eta aulki jartzen dira eta askotan azera gainean egoten dira, pasoa ostopatuz. Hori dela eta, Udalak agintzen du azerak libre utzi behar direla oinezkoentzat pasoa izateko. Agindu hau ez bada betetzen, udalak beharrezko neurriak hartuko ditu eta gainera kaseta laguntzailea kentzeko agindua emango du.

**4.- GABRIEL M<sup>a</sup> ORTIZ DE ERIBE JAUNAREN KASETA.-** Idazkariak azaldu du Gabriel M<sup>a</sup> Ortiz de Eribe Acordarrementeria jaunak, Karraspioko hondartzan kokaturiko 1. zenbakidun edari salmentarako kasetaren uztiakuntzaren titularra denak, biltegi bezala erabiltzen duen 3 x 5 metro inguruko kaseta laguntzaile mugikor bat jarrita duela Karraspion inolako baimenik gabe.

Izan ere, 2006ko udaldian ez zuen jartzeko baimenik eskatu, eta udalak ofizioz luzatu zion, udaldiari zegokion kanona kobratuz.

Kaseta urriaren 30erako kenduta egon behar zen, baina ortiz de Eribe jaunaren kaseta urte guztian egon da kendu gabe.

Hori dela eta, alkateak proposatu du baimena ematea 2007ko urriaren 30erarte kaseta jarrita izateko, urte guztiko kanona kobratuz, udaldian kobratzen zaionaren proportzioan.

Gaia aztertu ondoren, Udaltzak aho batez erabaki du:

Gabriel M<sup>a</sup> Ortiz de Eribe Acordarrementeria jaunari aipatutako kaseta jarrita egoteko baimena ematea, ondoren azaltzen diren baldintzapean:

1.) Kokalekua: Kaseta eskaeran azaldutako lekuan jarriko da, beti ere inguruan kokatutako izozki kioskotik nahikoa urruti eta ahal den neurrian aparkalekuak okupatzea ekidituz.

Kasetaren kokaleku zehatza udal pertsonalak gainbegiratuko du, ahal denik eta kalterik gutxien sortzen dituen lekuan jarria izan dezan.

2.) Udalari ordaindu behar zaion kanona SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMO (665,70 €) izango da.

Kanonaren ordainketa kaseta jarri aurretik egin beharko da Mendexako Udaletxean. Beharkizun hau ez betetzeak, baimen hau efekturik gabe utziko du.

3.) Baimen epealdia: 2007ko urriaren 30a arte baimentzen da kaseta jarrita egotea.

Epealdi hau bukatuz gero kaseta kendu egin beharko du. Horrela ez balitz, kaseta kentzen atzeratutako egun bakoitzeko isun bat ezarriko zaio.

Emandako baimenak ez du suposatzen ondorengo urteetan ere kaseta jartzea baimenduko denik. Jarri nahiko balu, eskaera berria aurkeztu beharko du, Mendexako Udalak aztertzeko.

4.) Edari kasetaren inguruan hainbat mahai eta aulki jartzen dira eta askotan azera gainean egoten dira, pasoa ostopatuz. Hori dela eta, Udalak agintzen du azerak libre utzi behar direla oinezkoentzat pasoa izateko. Agindu hau ez bada betetzen, udalak beharrezko neurriak hartuko ditu eta gainera kaseta laguntzailea kentzeko agindua emango du.

**5.- MEDIKUARENTZAT APARKALEKUA GORDETZEA ONARTU.-** Alkate jaunak azaldu du herriko medikua den Aurora Altuna andreak ahoz eskatu diola, gordetzeko medikuarentzat aparkalekua kontsultategiaren aurrean.

Gaia aztertu ondoren, Udaltzak ahobatez erabaki du.

Mediku eta erizainarentzat aparkaleku bana gordeta utzi, kontsulta aurrean, kontsultako egun eta orduetan. Dagokion seinalea jarriko da.

**6.- 2007KO UDALDIRAKO LAU HONDARTZAIN KONTRATATZEKO DEIALDIA.-** Karraspioko hondartzaren beharrianak betetzeko sortu diren hondartzain lanpostuak betetzeko eskaerak aurkezteko epea bukatu, hamar eskaera aurkeztu dira.

Hautagai guztiak ez dituzte betetzen deialdian eskatutako baldintzak.

Udaltzak, Mendexan urte bete baino lehenagotik erroldatuta egoteari, orain lanean edota bajan ez egoteari eta ihez lan ez egin izanari lehentasuna emanez eta berdinatzen egoeran zozketa eginez, erabaki du:

1) Ondoren aipatzen diren hautagaiek aukeratu hondartzain lanpostuak betetzeko, 2007ko ekainaren 1etik urriaren 15era bitartean:

- *Aresti Altzibar, Lexuri*
- *Galletebeitia Laka, Eneko*
- *Gorostiza Laka, Jurgi*
- *Ispizua Uskola, Aitor*

2) Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako lau hondartzainak nahiko ez direnez, Karraspioko hondartzarako errefortzuko hondartzain bat kontratatzea, 2007ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra. Lan baldintza guztiak beste hondartzainen berberak izango dira. Lehenetsun zerrenda jarraituz, aukeratutako hondartzaina izango da:

- *Iturraspe Gandiaga, Alazne*

3) Ordezkatze ondorioetarako, ondorengo ordezkokoak izendatzea (orden honetan):

- *Aresti Altzibar, Aiora*
- *Arriola Ibarra, Mikel*
- *Gereduz Villabrille, Unai*
- *Laka Guenaga, Miren Karmele*
- *Oñederra Mayoral, Aurora Magdalena*

4) Lan ordutegia Bizkaiko Foru Aldundiak bere txostenean ezarritakoa izango da funtsean, zerbitzua hobetzeko egin beharreko aldaketen kalterik gabe.

5) Hondartzainen betebeharrak Bizkaiko Foru Aldundiko txostenean ezarritakoak izango dira, bereziki trafikoa arintzea eta aparkalekuen kontrola.

6) Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro Zuzendaritzari igorri akordio honen ziurtagiria.

**7.- UDAL SARETIK UREN TOMA BAT EGITEKO MONTSERRAT IZAGIRRE ANDREAK AURKEZTUTAKO ESKAERA.-** Zelaia auzoan, Zelaia II exekuzio unitateko A2 partzelan eraikitako etxebizitzaren erabilerarako, udal saretik uren toma bat egiteko udal baimena eskatuz, Montserrat Izagirre Longarte andreak aurkeztutako eskaeraren berri eman ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Udal ur saretik toma bat egiteko udal baimena ematea, aurretiaz toma eskubideegaitik 180,30 euro ordaindu beharko dituelarik. Uren toma udal zerbitzu teknikoak esaten duen tokian egin beharko da.

**8.- SARRAILA ELEKTRONIKOAK JARTZEKO AURREKONTUA ONARTZEA.-** Idazkariak azaldu du prest dagoela Salto Systems, S.L. enpresaren aurrekontu egokitua, Udaletxean eta frontoian sarraila elektronikoak jartzeko.

Azterturik sistemak dauzkan abantailak (giltz bakar bat izatea adibidez) eta baita ere eragozpenak, Udalbatzak ahobatez erabaki du:

Mendexako Udaletxean eta frontoian sarraila elektronikoak jartzeko Salto Systems, S.L. enpresak aurkeztutako 5.833,52 €euroko aurrekontua onartzea.

**9.- UDALETXEAN ALARMA JARTZEKO AURREKONTUA ONARTZEA.-** Idazkariak azaldu du udal bulegoetan alarma sistema jartzeko aurrekontu bi ditugula, Securitas Direct eta Prosegur enpresenak.

Kontuan izanik prezioan dagoen alde, Udalbatzak ahobatez erabaki du:

Mendexako Udaletxeko 1go solairuko udal bulegoetan alarma sistema jartzeko Securitas Direct enpresak aurkeztutako 1.085,76 € euroko aurrekontua onartzea. Hileroko konexio kuota 31,50 €(gehi BEZ) izango da.

**10.- UDALERRIKO MAPA EGITEKO AURREKONTUA ONARTZEA.-** Idazkariak azaldu du udalerriko mapa egiteko AGS Cartografía enpresak aurrekontua aurkeztu duela.

Kontuan izanik oso interesagarria litzatekela eta Eusko Jaurlaritzako %75eko dirulaguntza lortzeko aukera dagoela, Udalbatzak ahobatez erabaki du:

Mendexako udalerriko mapa egiteko AGS Cartografía enpresak aurkeztutako 8.540,00 €(gehi BEZ) euroko aurrekontua onartzea.

**11.- FRONTOIAREN ERABILPENA ARAUTZEA.-** Alkate jaunak azaldu du, herriko gurasoek eskatu dutela herriko umeek frontoia erabiltzeko lehentasuna izatea.

Horren aurrean, eta frontoiaren erabilera nolabait arautu nahian, Udalbatzak ahobatez erabaki du ondorengo erabilera-arauak ezartzea:

- 1) Herriko umeek erabiltzeko gordeta egongo da, ondorengo egun eta orduetan:
  - Larunbat, igande eta jaiegunetan: arratsaldeko 17:00tik gaueko 21:00ra.
  - Astelehenetik ostiralera: arratsaldeko 17:00tik 19:00ra.
- 2) Pelotan jokatzeko lehentasuna izango dute herritarrek, astelehenetik ostiralera, 19:00tik 21:00ra.

**12.- KARRASPIO HONDARTZAN BOLEIBOL TXAPELKETA EGITEKO BAIMEN ESKAERA.-** Lekeitioko Boleibol Taldeak eskaera aurkeztu du, Bizkaiko Federazioarekin batera, datorren ekainaren 2an Karraspio hondartzan boleibol txapelketako ekitaldia antolatzeko.

Honen aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Lekeitioko Boleibol Taldeari eta Bizkaiko Boleibol Federazioari baimena ematea 2007ko ekainaren 2an Karraspioko hondartzan boleibol txapelketa egiteko. Ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Ospakizuna dela eta gerta daitezken kalteen erantzuleak antolatzaileek izango dira. Bere esku egongo da, ere, antolakuntza guztia.
- Antolakuntzarako beharrezko diren baimen guztiak eskatu beharko dituzte antolatzaileek, bereziki segurtasunari dagozkionak.
- Argitaratzen diren kartel, folleto, seinale, e.a. guztietan argi agertu beharko da Karraspioko hondartza Mendexa dela eta euskararen presentzia bermatu beharko da.
- Mendexako Udalak baimenduta dauka jadanik egun berean Bizkaiko Kayak-Sur txapelketa ospatzea Karraspion. Beraz, ekintza bien artean beharrezko koordinazioa izan beharko da.

**13.- GASTUAK.-** Ondorengo gasto eta fakturak aurkeztu dira, beharbada onartzeko:

- Oiniz Zerbitzuak fakturak, 466,04 € 632,41 € eta 420,94 €

- Ongizanen fakturak, 641,86 €eta 641,86 €
- Lanku Bertso Zerbitzuaken faktura, 1.818,36 €
- Luis M<sup>a</sup> Okamika Gojenolari, 182,80 €
- Kelan, S.L.ren faktura, 808,02 €
- Iragarri, S.L.ren faktura, 317,38 €
- Ihoberen faktura, 300,00 €
- Ansaren faktura, 321,31 €eta 563,77 €
- Electro Vizcaya, S.A.ren faktura, 622,84 €
- Lan Hotzen faktura, 23,94 €
- Urrestarazu, S.L.ren faktura, 97,29 €
- Urgioren faktura, 1.560,78 €
- L.M.Arnaiz, S.L.ren faktura, 123,96 €
- Cronometria Industrialen faktura, 177,01 €
- Xuri Burdindegiaeren faktura, 145,30 €
- Oronaren faktura, 470,25 €
- Cetolarren faktura, 295,80 €
- Garaje Aldape, S.L.ren faktura, 18,85 €
- Zorelorren faktura, 300,15 €

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu jaunak bilera amaitutzat eman du gaueko hamarrak eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.